

07/02 IRIZPENA

Konrado Mugertza
Kontseiluburua

Javier Del Campo jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pilar Ramírez and.
Raimundo Rubio jn.

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2007ko otsailaren 26ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Euskal Autonomi Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautespen prozesurako deialdia egiten duen agindu proiektuari buruz.

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari eskatu dio Euskal Autonomi Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautespen prozesurako deialdia egiten duen agindu proiektuari buruzko aginduzko txostena eman dezala.

I.- AURREKARIAK

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 12. xedapen gehigarriko 1. idatz-zatiak eta otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 16 artikulua zehazten dute karrerako funtzionario irakasleak hautatzeko sistema deialdi irekiko azterketa eta oposizio-lehiaketa bidezkoa izango dela.

2/2006 Lege Organikoak bere hamazazpigarren xedapen iragankorrean zehazten du legearen ezarpen-urteetan irakasleen funtzio publikora sartzeko egingo den hautespen prozesuko lehiaketa fasean kontuan hartuko direla prestakuntza akademikoa eta, lehentasunez, hezkuntza etapa horretako ikastetxe publikoetan lehendik izandako esperientzia irakaskuntzan, legeak baimentzen dueneraino. Oposizio fasean proba bakarra izango da eta bertan aztertuko dira kasuan kasuko espezialitateko edukiak, gaitasun pedagogikoa eta zenbateraino menderatzen diren irakasteko beharrezkoak diren teknikak.

EAEko Unibertsitatez Kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak Euskal Autonomi Erkidegoko Unibertsitatez Kanpoko Irakasleen kidegoak sortu zituen, eta horien artean deialdi honek aipatzen dituenak.

II.- EDUKIA

Agindu proiektu honek bi artikulua eta azken xedapen bat ditu, baita merezimenduak baloratzeko baremoa dakarren eranskin bat eta oinarriak ere.

Lehenengo artikulua Euskal Autonomi Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautespen probetarako deialdia egiten du.

Bigarren artikulua hautespen prozesua arautuko duten eta eranskinean agertzen diren oinarriak onartzen ditu.

Azken xedapenak helegiteak jartzeko epeak zehazten ditu.

III.- BALORAZIOAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak adierazi behar du zaila izan dela bere lana egitea Euskal Autonomi Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautespen prozesua arautzen duen agindu proiektuari buruzko irizpena ematerakoan, oso epe laburra izan duelako aurkeztutako agiriak aztertzeke.

Lehenik eta behin, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak marko orokorra arautzen duen Errege Dekretua argitaratu behar zuelako alde aurretik. Izan ere, Errege Dekretu honek beste formulazio bat dakar lehenago aztertutako zirriborroarekin alderaturik, alderdi berrienetarik batean, hau da, Autonomi Erkidegoetako Administrazioek baimena eman diezaiekete lehiakideei B probako 2. zatia ordez irakasteko gaitasun agiri bat aurkezteko.

Agindu proiektu honen inguruabarrak bereziak direla onartuta ere, irizpenak emateko presak beste aurrekari batzuk izan ditu berriki, beraz, hurrengoetarako hau kontuan hartzeko eskatu nahi diogu Sailari.

Arau berriaren zioei gagozkiela, Kontseiluak bere poza adierazi nahi du lan eskaintza publikoagatik, izan ere, askotan esan dugu irakaskuntza publikoko irakasleen bitartekotasun tasa oso handia dela, hortaz, bide horretatik jarraituz bultzatu nahi dugu Hezkuntza Saila Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren hamazazpigarren xedapen iragankorreko lehen puntua eta alderdi sozialaren eta Hezkuntza Ministerioaren artean 2005eko urriaren 20an lortutako Akordioak bete arte.

Kontseiluak bere poza agertu behar du, halaber, lan eskaintza publikoa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleen zerrendetan zentratuz dagoelako, izan ere, urteko txostenetan eta LPZe buruzko irizpenetan adierazi izan dugun bezala, lanpostu hauek etengabe gehitu behar dira, jaiotza tasaren eta immigrazioaren hazkundeak berekin dakartelako matrikula handitzea.

Badago hirugarren inguruabar bat: Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 94. artikulua eta Lehen Xedapen Iragankorrek Bigarren Hezkuntzako irakasleen

kidegoetara mugatzen dute DBHn irakasteko gaikuntza, horrenbestez, espezialitate guztietako 1.100 plaza horiek Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako baino ez dira.

Berritasun nagusia agindu proiektuaren 7.4.4. artikuluan dago. Errege Dekretuak 61. artikuluan dakarren formulazio berriaren arabera, autonomi erkidegoek baimena eman diezaiekete lehiakideei B probako 2. zatiaren ordezkari hezkuntza administrazioaren agiri bat aurkezteko haien irakaste praktikaren programazio didaktikoa kontuan hartuz eta, geroago, epaimahaiak dagokion puntuazioa emango dio agiri horri.

Kontseiluaren iritzian, agindu proiektu honek gai honen inguruan egiten duen garapena ez da behar adinakoa, hots, zehaztugabea da ez baitu adierazten nor egingo duen agiri hori ez zein irizpideri jarraituz egingo den, eta xehetasunak geroago argitaratuko direla diotse aurkeztutakoei.

Aukera honek tramite burokratiko eta formal hutsa bihurtzeko arriskua du, eta gerta liteke behar besteko hautespen gaitasuna ez izatea aukera hori egiten dutenen artean.

Beste alde batetik, mekanismo diskriminatzailea da funtzio publikora eskubide osoz sartu nahi baina irakaskuntzan lehenagoko esperientziarik ez dutenentzat edota esperientzia izanda ere LOE atera zenean jardunean ez zeudenentzat.

Errege Dekretuak ez du behartzen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila B probako 2. zatiko aukera hori eskaintzera, zeren eta, esplizituki jasotzen duen arren, aurkezten den bezala hezkuntza administrazioen esku uzten baitu aukera hori eskaintzeko hautabidea.

Gai hau tentuz aztertzeko eskatu nahi diogu Administrazioari hemen azaldutako iritziak kontuan hartuta eta, aukera honen alde agertuz gero, Kontseiluaren ustez hezkuntza ikuskatzailetzari legokioke agiri horiek egitea.

Nolanahi ere, parte-hartzaileen eskubideak bermatze aldera, eskabideak aurkezteko epea ireki baino lehen zehaztu eta argitaratu behar dira baldintza horiek.

Bitartekotasun tasa handia da eta ziur aski bitarteko maisu-maistra asko aurkeztuko dira eskaintako plazak eskuratzeko, beraz, ez bide da egokia oposizio faseko probak 6.1. atalean adierazitako datetan egitea, ondorio negatiboak dituelako aurkeztutakoentzat eta, bereziki, ikastetxeentzat ikasturtea amaitzekotan dagoela. Ikasturteko azken egunetan eskolarik ez dagoen arren, beharrezkoak dira aurtengo ikasturtearen ebaluazioa (Memoria) egiteko eta datorren ikasturtea planifikatzeko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2007ko otsailaren 26a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: Eva Blanco

Ikus-onetsia
KONTSEILUBURUA,

Sinaturik: Konrado Mugertza

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.